

1. Uztailera begira lortu nahi da..

Baserritarrek diote...

- Baserritarren arteko talde eta dinamika sendoa
- Eragileen arteko ezagutza, hartu-emana (baserritarra-kontsumitzailea); zubiak sortzea
- Eragileen artean konpromisoak adostea
- Bertatik Bertara gizarteratzea

Kontsumitzaileen ikuspegia:

- Kontsumitzaileen taldea handitzea
- Kontsumitzaile-baserritar beharrak uztartu (aurreiritziak albo batera utzi)
- Eragile ezberdinen mahai iraunkorra
- Konpromisoak adostu eta bideratzea
- Bertatik Bertara eta ibilbide hau gizarteratzea
- Edukietan 2 gai landu: produktuen kalitatea eta harreman zuzena; eta jangelak

Politikari eta teknikarien iritzia:

- Baserritar talde anitz bat osatu, errotu, kohesionatu eta ahalmenu
- Eragile ezberdinen arteko hartu-emana indartu
- Konpromiso eta ekintza zehatzak adostea
- Gizarteari, herritarrei “zergaitik” eta “zertarako” ondo komunikatzea. Ilusioa transmititu.
- Lehen sektoreare arloko politika publikoen inguruan hausnarketa egitea.



2. Gaur egungo diagnostia



- Baserria gainbera doazela errealitate bat da; errentagarritasun mugatua.
- Sektorea zaharkitua dago. Transmisioa, landu beharreko gaia.
- Ekoizleen arteko antolakuntza eta salmentarako gaitasun eza.
- Kontsumitzaileen artean in-formazio falta nabaria
- Bertako produktuei buruzko kontrol zorrotza ez dago
- Ekoizpena-kontsumoa uztartzeko zubiak eta egiturak falta dira.
- Burokrazia eta administrazioa.
- Baserriko eta bertako produktuekiko ezagutza eta informazio falta.
- Bertako produktuen eskaintza mugatua. Eskaera berri bati erantzuteko prest?
- Kalitate kontrol zorrotza mantendu beharra –batik bat ekoizpenak gora egin behar badu-.
- Baserri eta merkatarien arteko elkarlan eza. “Kontrako eragileak”?
- Kontsumitzaile “instituzionalak,” araudiaren baldintzapean.
- Testuingurua eta egoera ekonomikoa.
- Sektorearen enpresa-ikuspegia eta erreakzionatzeko ahalmen urria.
- Orain arte lehen sektorearen eta baserri-munduan aplikatu diren politikek ez dute partekatzen dugun eredu honen alde egin.
- Baserritar berriak sektorera erakartzeko zailtasunak.
- Baserriko eta bertako produktuekiko ezagutza eta kontzientzia sakonago baten falta; produktuei benetako balioa ez zaie aitortzen.
- Eskaintza eta Eskaeraren arteko desoreka handia eskualdean.

- Baserria balioan jartzen ari da.
- Eskualdean badira ekoizleak eta gauzak aurrera eramateko gogoia eta ilusioa.
- Baserriak ondo ekipatuak daude eta kalitatezko produktuak ekoizten ditugu.
- Kalitatezko produktuak ditugu inguruan eta gertu.
- Bertatik Bertara egitasmoa oso positiboa izan da bertako produktuak ezagutarazten hasteko.
- Baserriko eta kalitateko produktuen aldeko kontzientzia zabaltzen ari da gizartean.
- Bertako produktuen eskaera hazten ari da eta merkatu potentziala badago.
- Administrazioaren bultzada somatzen da.
- Sektorean ilusioa somatzen da.
- Baserritar aktiboak eta aldaketarako jarrera positiboa duten baserritarrak badaude eskualdean.
- Gizarte mailan kontsumo arduratsuen aldeko kontzientzia badoa hedatzen.
- Bertako produktuen salmentan merkatu eta bide berriak zabaltzen hasi dira bailaran.
- Bailarak potentzialtasun handia du alor honetan –teorian behintzat-.

3. 2025rako bisioa; lehen sektorearen egoera honakoa izatea nahi dugu Urola Garaian...

